



## SARAKO LOREA

Piarres Larzabal

Iturria: *Piarres Larzabalen idazlanak (III)*, Piarres Larzabal  
(Piarres Xarrittonen edizioa). Elkar, 1992

Klasikoen Gordailuan:  
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LarzabalSarakoLorea.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,  
eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak  
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## SARAKO LOREA

*(Lau gertalditako antzerkia-1964)*

### Jokalariak:

**DRAGON:** Sans-culotte aintzindaria, 40 urte, idor, zaintsu.

**BORTOLO:** Sans-culotte, soldadoa, 20 urte, jitez leun.

**BATITA:** Sans-culotte, soldadoa, 30 urte, edozoin.

**APOLO:** Sans-culotte, soldadoa, 25 urte, edozoin.

**PIPO:** Sans-culotte, soldadoa, 40 urte, edale arpegiarekin.

**TOMAS:** Sans-culotte, soldadoa, 40 urte, edozoin.

**APEZA:** 60 urte, eder, boza on.

**BEÑAT:** 30 urte, gorputz eder, boza idor.

**JUJEA:** 50 urte, eder.

**MADALEN:** 18 urte, pollit, gorputzez fin, boza bero.

**KATALIN:** 40 urte, goza leun.

**FRANKLIN:** 11 urte, edozoin.

**CÉSARINE:** 40 urte, gizontsa.

**DIANE:** 16 urte, ergelki beztitua.

**KARABINERO:** 40 urte, eder, idor.

Beste batzu, mintzatzen ez direnak: Mutiko kozkor bat, neska bat, amatxi bat eta holako.



## LEHEN GERTALDIA

### Joka-lekua:

Poliz-etxe baten aintzinean gira... Atearen gainean idatzia: Liberté, Egalité, Fraternité... Saihets batean, xuriketa hedatzeko soka bat...

*Oibala idekitzean, ikusten da Franklin bakarrik, jostetan ari. Apur baten buruan, Dragon dutela manatzale, sartzen dira lau sans-culotte (Bortolo, Batita, Pipo, Tomas) soldado urratsean eta emaiten lerro batean.*

**DRAGON:** (*Manatu*) Un deux, un deux!... Section, halte!... A droite, droite! Battez le pas marche!... Cessez!... Repos! (*Euskaraz mintzo da kiskun-kaskun, bereziki «Z» gebienak «S» eginez*) Orai kasu! «da théorie». Frantzian orai erreboluzioea... Erreboluzioea handia... zuek da la Republika... Zuek ez da erregea... Erregea, Louis XVI, guk lepoa pika... Erregea fuera! Erregea fini!... Eta orai, biba la Republika! Ale, oiuhu: Biba la Republika!

**DENEK:** Biba la Republika!

**DRAGON:** Berriz!

**DENEK:** Biba la Republika!

**DRAGON:** Bon, ongi.

**FRANKLIN:** Biba la Republika!

**DRAGON:** (*Irriz*) Ikusten nere semea... nere semea maite Republika... Republika ona... Erregea txarra... Erregea, ez maite libertatea. Erregea populua preso.

**FRANKLIN:** Biba la Republika!

**DRAGON:** (*Fermuki*) Citoyen Franklin, aski! Euskaldunak erregea maite... Euskalduna zozoa... Euskalduna «ignorant»... Ni Parisen... Nik ikusi... Populua dena preso Bastillan... Populua reboltatu... Guk, Bastillari pan pan!!... Guk, Bastilla hartu eta populua libro. Erregea, Louis XVI, bera preso, eta tribuna, lepoa pikatu... Ale, oiuhu: Biba la Liberté!

**DENEK:** Biba la Liberté!

**DRAGON:** Berriz! Ale!

**DENEK:** Biba la Liberté!

**DRAGON:** (*Haserre*) Ez aski fuerte... Zuek lo... ni atzarriko zuek... Attention à mon commandement: Garde à vous! Repos!... Garde à vous! Pas de course, sur place, marche! Plus vite... Plus vite!... Cessez!... Repos! (*Franklinek, bere aldetik, soldadoen jestu berak egiten ditu*) Hola ni!... Zuek lo! Ni zuek atzarriko... Soldado ona ez lo... begia ideki lo egiten. (*Césarine heldu da xuriketa hedatzerat. Saskia lurrean pausatzen du... Franklinek nahi du ama lagundu eta saskitik xuriketak hartzen ditu*) Begiak ideki! Beharriak ideki! Arma beti kartutxa prest. Pan pan egiteko beti prest... Berriz Liberté galduko.

**CÉSARINE:** (*Semeari*) Errak to, ez hunki xuriketa horiek, hire esku zikinek!

**DRAGON:** (*Césarine-i*) Hi, ene emaztea, citoyenne Césarine, ixilik!... Ni teoria egiten ari.

**CÉSARINE:** Eta hi, ene senarra, citoyen Dragon, manatuko duk hor hire soldadoeri eta ez hemen, hire emazte eta haurrari.

**FRANKLIN:** Biba la Liberté!

**CÉSARINE:** Eta, hi mutiko mukitsua, hago ixilik, ez badituk nahi bi zaflako.

**FRANKLIN:** O, citoyen Dragon, citoyenne Césarine-ek ni jo nahi!

**DRAGON:** Citoyenne Césarine, Republika haurra errespetatzen!

**CÉSARINE:** Bai, citoyen Dragon, bainan haurrak ez badu ama errespetatzen erradazu zer egiteko manatzen duen Errepublikak.

**FRANKLIN:** Biba la Liberté!

**DRAGON:** (*Soldadoeri*) Bai, biba la Liberté!... Eta, biba l'Egalité! Orai dena igual, dena berdin... Lehen handia manatzen, tipia obeditzen... Orai, ez handi, ez tipi, dena berdin. Erregea, hola tripa handia, ase. Populua, tripa baterez, gosea... Orai, erregea eta populua, dena igual, berdin. Lehen «Monsieur» eta «Madame» erraiten. Orai, gizona, «Citoyen», emaztea, «Citoyenne»... Eta dena «to» erraiten. Aita haurra «to»... Haurra aita «to». (*Bere semeari*) Citoyen Franklin, ni nola izena?

**FRANKLIN:** Hi, citoyen Dragon!

**DRAGON:** (*Kontent*) Horra nola behar erran... Arras ongi to, citoyen Franklin.



**FRANKLIN:** Garde à vous, citoyen Dragon! (*Dragon ematen da «garde à vous»*) Repos, citoyen Dragon! (*Dragonek obeditzen du... Elgar agurtzen dute, soldadoen moldean. Dragon kontent da*)

**CÉSARINE:** (*Kexu*) Bai... Gasta-zak, gasta, haur txar hori... Ondoko egunetan, ageriko ean obedituko hauen!

**FRANKLIN:** Biba l'Egalité! (*Amari mibia jaliz*)

**DRAGON:** Ba, biba l'Egalité... (*Soldadoeri mintzo*) Ale, denek oihu: Biba l'Egalité!

**DENEK:** Biba l'Egalité!

**DRAGON:** Berriz!... Oihu egin!...

**DENEK:** Biba l'Egalité!

**DRAGON:** Hola ba!... (*Batitari*) Hi, nola izena?

**BATITA:** Batita, jauna!

**DRAGON:** (*Kexu*) Zer? Ni ez «jauna»... ni «citoyen Dragon». Berriz erran... hi nola izena?

**BATITA:** Batita, citoyen Dragon...

**DRAGON:** Hi ez «Batita»... Hi, «citoyen Batita»... (*Mintzo da Bortolori*) Hi nola izena?

**BORTOLO:** Citoyen Dragon, nik izena: Citoyen Bortolo!...

**DRAGON:** Arras ongi... Hola behar erran... Hi, citoyen Bortolo, soldado ona, hi galonak... Eta orai, denek oihu: Biba la Fraternité!

**DENEK:** Biba la Fraternité!

**DRAGON:** Ez aski oihu!... Berriz!

**DENEK:** Biba la Fraternité!

**DRAGON:** Bon... La Fraternité zer da?... Lehen tipia lana, handia besta... Orai, la Fraternité!... Orai, dena besta... Apeza ez nahi besta... Apeza kendu besta... Gu, kendu apeza. Apeza fuera Espainia... Apeza ez, zeremonia ez... Zeremonia ez behar... Fini religionea, fini Eliza! Gu, eliza zerratu... Gu, elizan zaldia eman... Orai, religione berria... Liberté arbola birabira dantzan. Apeza ez nahi dantza... Gu, dantza nahi... Apeza nahi Ama Birjina... Gu, nahi neskatxa! (*Irri larri batekin*) Apeza otoitza Ama Birjinarekin!... Gu, otoitza neskatxarekin... Apeza, arropa luzea nahi neskatxa... Gu, ken arropa luzea... Ederra naturala!... Ama Birjina, ez gehiago zeruan!... Ama Birjina lurrean!... Gu, zeremonia egiten arnoa edan, dantzan, kanta... Dena kanpoan, arbola birabira... Ez behar apeza... Ez behar eliza...

**DIANE:** (*Sartzen da, kexu*) Errazu, aita!...

**DRAGON:** Nola erraten?

**DIANE:** Errazu, citoyen Dragon!

**DRAGON:** Nola erraten?

**DIANE:** Errak, citoyen Dragon!

**DRAGON:** Bon, errespetu Republika...

**DIANE:** Bai, sarri, omen da prosesionea Errepublikaren ohoretan... Karrosa loratu batean behar omen dute ibili «la déesse Raison»... Eta, nik egin behar omen dut «la déesse Raison»!...

**DRAGON:** Ni kontent, citoyenne Diane... Hi, neskatxa pollita... He, citoyen, pollita he ene alaba? (*Denek irri egiten*)

**DIANE:** Bainan, ni ez naiz batere kontent... Zera... Biluzia behar omen dut ibili... Ni ez naiz biluziko!

**DRAGON:** Nik erran hi ibiliko, citoyenne Diane!

**CÉSARINE:** Zer ari haiz? Burutik joaiten, holako zozokerien manatzeko?

**DRAGON:** Hi ixilik, citoyenne Césarine... Hi dena zaharra... Fitsik ez konprenitzen religione berria... Religione berria, dena naturala.

**CÉSARINE:** Naturala ba. Hi gozatuko haiz besten naturalaz, bainan nor egingen duk hireaz?...

**DRAGON:** (*Kexu*) Hi, ixilik, citoyenne Césarine... Ni nausi hemen... Citoyenne Diane, nik erran, hi ez dena biluzia... Pixka bat bakarrik...

**DIANE:** Ni ez naiz ibiliko karrosa hortan... Aski duzu, ene orde, beste bat harrapatzea!

**CÉSARINE:** Aski ditzen emaita soldadoekin dabilzan neska tzar horietarik... Badituen horiek usaia...

**DRAGON:** Ixilik, citoyenne Césarine... Fuera, ala fuera hemendik!

**CÉSARINE:** (*Ateratu*) Fuera bai... Biba la Liberté!

**FRANKLIN:** Biba la Liberté!

**DRAGON:** Ixilik, citoyen Franklin... Fuera hi ere... Ale, amarekin... Fuera!

**DIANE:** Ez beti ni baitan konda, sarriko zeremonia hortako...

**DRAGON:** Citoyenne Diane... Ni Republika... Ni behar obeditu... Ni, citoyen Dragon, ni hemen nausi... Denek ni behar obeditu...

**DIANE:** Nahi duzun guzia, bainan ni ez naiz biluzia ibiliko...

**DRAGON:** Fuera hemendik, citoyenne Diane... Fuera... Gero mintzatuko nik eta hik... Ale, fuera! (*Diane ateratzen da*) Emaztea, Republika ez maite... Emaztea, erregea, apeza, dena berdin... Dena arropa luzea maite... Gu gizona, gu ez emaztea... Ale, repos!... Garde à vous! Repos!



**APOLO:** (*Sartuz eta soldado moldean agurtuz*) Citoyen Dragon, ene aintzindariaren partez, mezu batekin heldu nauk!

**DRAGON:** Mintza hadi, citoyen sans-culotte!

**APOLO:** Citoyen Dragon, ene nausiak jakin arazten dauk, Sarako kartier batean badela apez bat gorderik... Eta, hura lehenbailehen arrasta dezakan.

**DRAGON:** (*Errabian*) Apeza!... Beti apeza!... Ni apeza atxeman... Ni apeza lepoa tinka, hola!... Gero, lepoa pika, gillotina... Huu apeza! (*Soldadoari*) Citoyen sans-culotte, erran aintzindariari, nik apeza arrastatuko...

**APOLO:** Ongi da, citoyen Dragon. (*Ateratzzen da*)

**DRAGON:** A mon commandement, repos!... Garde à vous!... Kasu nik zer erran, citoyens sans-culotte!... Zuek arma hartu... Gu dena Sararat joan! Saran, mia, mia etxe guziak... Apeza atxeman... Apeza preso hartu... A gauche, gauche.... En avant, marche!... (*Ateratzzen dira soldado urratsean*)

## OIHALA

## BIGARREN GERTALDIA

### Joka-lekua:

Ezkaratze bat... Presuna batzu, orotarik, arto xuritzen ari dira eta, ber denboran, otoitzean... Beñat atezain dago eta jende sar arazten ari da... Katalin eta Madalen han daude, besten artean... Oro dira zintzo eta beldurti.

**APEZA:** (*Boza ilun, estola lepotik, belauniko, litanien galdeak egiten dituela*) Zure Eliza Saindua, argi eta geriza dezazun.

**DENEK:** Otoizten zaitugu. Entzun gaitzazu!

**APEZA:** Eliza Sainduaren etsaiak ditzazun apal.

**DENEK:** Otoizten zaitugu. Entzun gaitzazu!

**APEZA:** Elizako buruzagi eta apezak, fede saindutik ez daiten bazter.

**DENEK:** Otoizten zaitugu. Entzun gaitzazu!

**APEZA:** Mundu huntako errege eta buruzagiaren artean, egiazko bakea begira dezazun.

**DENEK:** Otoizten zaitugu. Entzun gaitzazu!

**APEZA:** (*Mintzo, otoitza utzirik*) Oroit zaitezte nola elgar adituak giren. Hurbiltzen bada hunarat etsairik, Beñatek abisatuko gaitu... Emazteak, xaharrak eta haurrak, hol'hola egon daitezela. Besteak, doatzila ihesi selaururat, hunako ate huntarik... Ni hemen egonen naiz, hemengo mutila banintz bezala... Eta zu, Katalin, oroit hortaz... Ni izanen naizela etxeko mutila eta zu ene etxeko anderea.

**KATALIN:** Agian ez gira hortaratuko, jaun erretora!

**APEZA:** Eta nehork ez dezala bururik gal, etsaiaren zalapart eta mehatxu guziengatik. (*Otoitz egiten du aintzina*) Gristino populu guzieren bakea eta bat egitea, eman diezozuten.

**DENEK:** Otoizten zaitugu. Entzun gaitzazu!

**APEZA:** Guhaur izan gaiten zure zerbitzari leial eta zintzo.

**DENEK:** Otoizten zaitugu. Entzun gaitzazu! (*Zakur sainga urrun batzu entzuten dira... Denak daude erne*)

**APEZA:** Gure gogoetak haz ditzazun, ez mundu huntako, bainan besteko hazkurritz.



**DENEK:** Otoizten zaitugu. Entzun gaitzazu!

**BEÑAT:** Mugi, mugi... Bi «sans-culotte» heldu dira tirahala. (*Hitzartu bezala, oro plantatzen dira... Katalinek Ama Birjinaren itxura gordetzen du eta, haren orde, ezartzen Errepublikaren bandera. Apeza estola gorderik, lotzen da arto xuritzen... Zakur saingak entzuten dira... Atea inarosten dute*)

**BATITA:** (*Kanpotik presaka*) Idek!... Idek, otoi, laster!...

**KATALIN:** Horra, horra! Jes! Nor dabil holako zalapartetan? (*Idekitzen du... Sartzen dira Batita eta Apolo*)

**BATITA:** Agur jendeak!... Ez izi! Bi Senperetar gira... «sans-culotte» etan sartu gaituzte, guk nahi edo ez. Bainan eskapatu gara eta nahi ginuke Espainiarat ihesi joan... Otoi, lagun gaitzazu!

**KATALIN:** Hemen laguntza guti dugu... Emazteak gira bakarrik eta etxe-ko mutil zaharra... Horra nun den... Ez dakit ezagutzen duzuenetz...

**BATITA:** (*So egin ondoan*) Ez... ez dugu ezagutzen...

**KATALIN:** Nola eskapatu zarete?

**BATITA:** Badugu han, Dragon izeneko «sans-culotte» aintzindari erre zital bat... Harek gaitu, bospasei, nahi edo ez, soldado altxatu.

**KATALIN:** Nundik eta nola bide egin duzue hunarat?

**BATITA:** Goiz huntan igorri gaituzte Sararat «sans-culotte» multxo bat... Apez bat gordea omen dago hemen nonbait... Norbaitek salatu du... Apez hura arrastatzerat igorri gaituzte... Dragonek nahi lioke, nihondik ahal badu, lepoa moztu.

**KATALIN:** Apez hura ezagutzen dutea zuen lagunetarik zonbaitek?

**BATITA:** Nekez... Gure lagunetan, euskaldun guti dira... Bost Senperetar bildu gaituzte, gu biak, beste bi arnoarekin ezkonduak eta gazte bat... Hau, Errepublikaren alde, dena ametsz hantua... gaineratekoak dira erdaldunak: Frantximent, Aleman eta nik dakita zer?

**KATALIN:** Hemen fama da, soldadoak etxetarat sartzen direla eta berek nahi dutena joaiten dutela, deus pagamenik gabe...

**BATITA:** Ba, manua hala dugu... Etxetan jatekoa galda... Ez badute eman nahi, guhaurek har eta ereman.

**KATALIN:** Hola nahi badute Errepublika maitarazi, ez dira aise beren xedetarat helduko.

**BATITA:** Bai, eta gainerat, mesfidatzen dira mugako jendeaz. Dragoneri entzun diot erraiten, behar dituztela hiru herri oso-osorik

jendez hustu: Azkaine, Sara eta Ainhoa... Eta, horietako egoiliar guziak Landes alderat igorri.

**KATALIN:** Gure Jainkoak ez ahal du holakorik nahiko!

**APEZA:** Eta Senpereko eliza idekia dea?

**BATITA:** Ba, bainan Dragonek, zalditegia muntatua du barnean... Ez omen da gehiago Jainkorik... Atzo arratsean, prosesionea egin zuen, neska tzar batzu, erdi biluziak ibiliz, elizako pabillunaren azpian.

**APEZA:** Eta, zuen erretora, zer bilakatu da?

**BATITA:** Ez dakit... Hastapen hartan, Errepublikaren alde zen... Orai, kontra omen da berriz... Ez da gehiago nehon ageri... Nonbait gordea bide da... Bon, bainan guk behar ginuke lehenbailehen muga trebesatu...

**KATALIN:** Ene alaba Madalen hunek erakutsiko dautzue bidea.

**APEZA:** Ba, Madalen, eremazkitzu, erreka segituz, gaineko leporaino... Hor, gutitan dira ibiltzen mugazainak.

**BATITA:** Bon, beraz milesker, jende onak. Ondoko egunetan, gurutzatuko ahal gara oraikoa baino lasaikiago.

**APEZA:** Bai, bai bestaldi bat artio... Jainkoak lagun zaitzatela. (*Hiruk ateratzen dira*)

**KATALIN:** (*Gorderik daudeneri*) Agertzen ahal zaitezte. (*Bandera berriaz kentzen du eta, haren orde, Ama Birjinaren itxura ezartzen... Gordeak agertzen dira*)

**APEZA:** (*Beñati*) Entzun dituzu, dudarik gabe, horien solasak!

**BEÑAT:** Ba, entzun ditut. (*Errabian*) Urdeak! Gorri ustelak! Nik ez dezaket konpreni, jaun erretora, nola giristino bat eta gainerat apez batzu, izan ditazken gorri horien alde. Ez ote dute ba begirik, ikusteko horiek nor diren eta gure fedea zer bilaka liteken horiek nausitzerat utziz geroz!

**APEZA:** Ez uste izan, Beñat, erregea baitezpadako dela, fedea salbatzeko. Orain artino erregearen menea bizi ginen... Orai lan tzarretan ari diren Errepublikano horiek, erregearen pean handituak dira... Erregea izanagatik, eta berdin, haren faltaz, fedea gal ditake.

**BEÑAT:** (*Doala gero eta saminago*) Beraz jaun erretora, zer gituzu? Errepublikano tzar horien maila berean gu ere ezartzen?

**APEZA:** *Liberté, Egalité, Fraternité* ideia horiek ebanjelioan kausitzen direnak dira... Pena da Errepublikanoek baitituzte, burtxoroki



ibiltzen. Horien ideiak aberatsak dira... Ideia horien gobernuak daukate okerra...

**BEÑAT:** Bainan, ez ote da artzainaren eginbidea, bere artaldearen otsoetarik zaintzea?

**APEZA:** Enetzat ez da otsorik, bainan bakarrik ardiak... Ardi batzu baditut niganik hurbil daudenak... Bainan baditut ere beste ardi batzu, artaldetik urrunduak, eta hek ere, berdin maite ditut.

**BEÑAT:** Bainan, jauna, ez duzu ikusten, hola jokatu, gezurra eta egia, berdin dituzula zerbitzatzen?

**APEZA:** Egiaren jabe direnetan, ez da itzal gabekorik... Eta, gezurrean dabilzanetan, asko pondutan, egia bota dezakete...

**BEÑAT:** Mintza zaite garbiki. Beraz, zure arabera, berdin da norbait izan dadien errepublikano edo erregetiar!

**APEZA:** Nik diotana da: Erlijioneak, nehoi ez diola manatzen izaita erregetiar edo errepublikano... Bakotzak hauta beza gustukoa duen alderdia, bainan erran gabe: Fedeak hola hautatzea manatzen diola.

**BEÑAT:** Hola balin bada gure ibilbidea, zertako heldu zira gurekin bakarrik? Zertako ez zira joaiten errepublikanoekin ere?... Zure solasak ederrak dira, bainan nik, horien obratzen nahi zintuzket ikusi.

**APEZA:** Bai, etorriko da oraino beharbada eguna, Errepublika agertuko baita Erregea baino fededunago... Orduan, giristinoek oihi eginen diote «Fuera» erregeari, eta «Agur» Errepublikari. (*Zakur saingak entzuten dira*)

**BEÑAT:** Sans-culotte-ak heldu!... Gorde laster!... (*Katalinek berriz, lehen bezala, bandera ezartzen du... Sartzen dira Dragon eta Bortolo*)

**DRAGON:** (*Denetara so egiten du eta soldadoen moldean salutatzen du bandera*) Hola ni maite bandera... Bandera Republika... Ona bandera... Bandera erregea, fuera bandera!... (*Katalini*) Zu, Republikanoa?

**KATALIN:** Bai, jauna... Errepublika arras ona dela diote.

**DRAGON:** Zu gizona nun da?

**KATALIN:** Gizona hila dut, jauna!

**DRAGON:** Zu familia nun da?

**KATALIN:** Alaba zaharrena joana dut komisionez... Huna hemen beste ene etxeokak: Bi haur gaztenak, ama xaharra eta mutila.

**DRAGON:** (*So dago deneri*) Bon, bon... Mutila, zonbat urte?... Errak, hi, zonbat urte?

**KATALIN:** Barka zozu, jauna, ez badu erreputarik emaiten... Arrunt elkorra da eta, gainerat, zangotarik errezelatua... Zaude, mugiaraziko dut nik. (*Mutilari manatu*) Xuti zaite hortik eta zoazi behieri azpi egiterat!

**APEZA:** Bon, bon... (*Xutitzen da eta mainguka ateratzen*)

**DRAGON:** (*Mutilari mintzo belarrirat*) Republikan ez mutila gehiago eta ez nausia. Republika dena berdin...

**APEZA:** Milesker, milesker! (*Ateratzen da*)

**DRAGON:** Hemen apeza ez ikusi?... Apeza hemen gorde he?

**KATALIN:** Ez dugu hemen zuk baino apez gehiago ikusi, jauna... Hemen, familia pobre bat gira, ahal bezala bizi.

**DRAGON:** Republika ez pobre, ez aberats, Republika dena berdin. (*Madalen sartzen da*)

**KATALIN:** Huna ene alaba zaharrena, Madalen. Komisionea eginik, heldu da.

**DRAGON:** Neskatxa pollita, Madalen... Ni neskatxa pollita maite. (*Kokotsa azpitik kilikatzen bezala*) Ni bala egin... Zu bala etorri... Zu enekin dantza. (*Madalenek ez du iduri batere kontent dela. Dragon, berriz, bortizki mintzo*) Bon, ni joan. Ni, gizona hemen uzten, citoyen Bortolo... Bortolo mia, mia etxea... Kurri, kurri dena barne guzia... Apeza ez hemen, denak tranquil utzi... Apeza hemen gordea, dena fusilatu, etxea erre, apeza lepoa pikatu... Ni berriz etorriko... Citoyen Bartolo, egin lana... Mia, mia dena! (*Bandera salutatzen du, elgar salutatzen dute Bortolorekin, ateratzen da*)

**BORTOLO:** (*So egiten du eskuin eta ezker*) Oixtiko zuen mutil hura, nahi nuke berriz ikusi!

**KATALIN:** Ez da urrun... Madalen, zoazi eta errozu mutilari etor dadien. (*Eskuz, keinu egiten dio: ezetz*)

**BORTOLO:** Eta gero, behar ditut etxe huntako barne guziak ikusi.

**KATALIN:** Bai, bai, ikusten ahal dituzu denak, ez duzu nehon urrezko luisik harrapatuko.

**BORTOLO:** (*Ate bat nahi luke ideki... Ez dezake*) Ate hau nola idekitzen da?

**KATALIN:** Ate hori ez da idekitzen denetarik... Egundainotik itzatua dago.

**MADALEN:** (*Sartuz*) Mutila ez dut nehon atzemaiten... Ez dakit norat joana den.

**BORTOLO:** (*Suminduki*) Zer zirezte? Nitaz trufatu nahiak? Zer uste duzue? Ez dudala nik zuen mutila ezagutu? Apeza da hori! Eta, ate hunek, gakoa ibili berria du! Gezurtiak, zuek! Ez baduzue



onez onean ari nahi enekin, mintzatuko zirezte hunekin. *(Errebolbera eskutan hartzen du... Oro ikaratuak dagotzi)* Berehala, zuen mutila nahi dut ikusi, edo, zuetarik bat erretzen dut! *(Betbetan, ate ezin idekia, tanpean idekitzen da. Beñat eta beste bi gizon agertzen dira... Borroka labur baten buruan, Bortolori errebolbera kentzen diote. Bi besoak altxatzen dituela, Bortolo xutik dago, murruaren kontra)*

**BEÑAT:** *(Orroaz)* Nork dik hemen bestea garbituko... Hik gu ala guk hi? *(Lagan bati mintzo)* Habil selaururat eta ekar handik soka bat... *(Bortolori)* Urde ustel kriminel zikinak! Zer uste duzue? Hil, ebatsi eta basakeria guziak egin ondoan, ordainik gabe, kito ateratzea? Ikusiko diagu ean hoin fier izanen haizen, sokaren muturrean dilingo!

**BORTOLO:** *(Daldaretan dago... Noizgan bebinka, ahapetik dio)* Barka, barka!

**BEÑAT:** Herresta zikina hi! Bi sosen galona bildu duk mandil batzuen eskutik... Ez baihuen sekulan bilduko hihauerek merezimenduez... Eta orai, hemen daukak zangopean nehori egundaino kalterik egin ez duen jende gaixoa.

**BORTOLO:** Barka, barka!

**MADALEN:** Huna jaun erretora!

**BORTOLO:** Barka, jaun erretora, barka! Bestek manatuz ari naiz!

**APEZA:** *(Ezfitiki eta fermuki)* Soldado krima egile guzien leloa duk hori: «Bestek manatua egin dut». Soldado ohoreak ez dik holarikorik galdatzen. Bere kontzientzia saltzen duen gizonak ez dik gizon izena merezi.

**BEÑAT:** Nahi badu kofesatu, mugi dadiela. Guk soka prest dugu.

**APEZA:** *(Kartsuki)* Ez, Beñat, ez zazula holakorik egin!

**BEÑAT:** *(Haserrekei)* Zer!... Gu deneri bizia kentzerat etorri den ustel hunek, ez ahal du merezi berak bizia gal dezan!

**APEZA:** Ez dut erraiten ez lukela merezi... Bainan hobe litekela konberti dadien, hil dadien baino.

**BEÑAT:** Hunen konbertitzea duzu esperantza? Egun ba, eginen du konbertituarena, bainan bihar berriz gu saltzeko... Ba ahal dakizu arbola usteletik ez daitekela etor fruitu onik!

**APEZA:** Barka zozuete, Beñat, uste dut bestela jokatu dela hemendik aintzina, gertakari hunen ondotik. Eta, zuek ere, zuen bizian hobeki gozatuko duzue barkatuaren zoriona, eze-netz mendekatuaren iluna.

**BORTOLO:** Hitzemaiten dautzuet ene laguntza, ahal dudan guziz.

**BEÑAT:** Prest hiza errepublikano tzar horiek utzi-eta, gurekin, erregetiar soldadoetan sartzeko?

**APEZA:** *(Kartsuki, bibotz barne-barnetik)* So egizue, adixkideak, ene adixkide maiteak! Denak hemen euskaldunak gira, odol bereko, familia bereko, mintzaira bereko... Zer munta du batzu izan gaitezen erregetiar eta beste batzu errepublikano? Elgarren artean ditugun lokarriak ez ote dira miletan aberatsago, huts tarreak baino? Ez zirezte ohartzen, zuen errege eta errepublika ez direla gureak?... Gure artean diren nahaske-riak, ez direla hemen sortuak, bainan urruneko giderdunek piztuak eta hunarat hedatuak? Ez ote duzue ikusten, gure artean ixuri odola ez dela guri baliatzen bainan nonbaitik gu huiatzen ari direneri? Adixkideak, ez gaiten izan itsul! Oren latz hautan, kanpotikako nahaske-riak utz ditzagun kanpoan eta kanpotiarrentzat. Eta gure artean, euskaldun guziek elgarri esku eman dezagun. *(Zakur saingak entzuten dira)*

**KATALIN:** Mugi, mugi!... Dragon heldu da... *(Bakotxa badoa, hitzartu bezala, bere lekurat.... Beñatek errebolbera pautsaten du mahainaren gainean... Bortolok, errebolbera ezartzen du bere sistroan, jartzen da, oraino izzerdi ikaretan. Madaleneke, oihal bat emaiten dio izzerdiaren xukatzeke eta, baso bat aintzinean pautaturik, edaterat zerbitzatzen dio... Zerbitzatzen ari delarik, sartzen da Dragon)*

**DRAGON:** *(Harritua, irri aire batekin)* Ha, citoyen Bortolo edaten... Neskatxa pollita zerbitzatzen... Marka on!... Hemen maite Errepublikak. Ez fitsik atzeman, citoyen Bortolo?

**BORTOLO:** Ez... Fitsik...

**DRAGON:** Ni segur apezka ez hemen... Apezka ez nahi hola neskatxa eta mutila... Apezka nahi urrun neskatxa, urrun mutila... Etorri enekin, citoyen Bortolo... Gu etxe guziak ibili behar... Guzua mia mia! *(Bandera salutatzen du)* Biba la Republika, citoyens!

OIHALA





## HIRUGARREN GERTALDIA

### Joka-lekua:

Mugarri bat mendian. Haren saihetsean, harroka bat, ote batzu eta hola... Mugaz bestaldean, noizean behinka, mugazain espainol bat agertzen da... Mugaz hunaindian, gordea dago Beñat... Norbaiti keinu egiten dio etor dadien, muga libro dela. Apeza agertzen da.

**BEÑAT:** Muga libro da, bainan ez luzerentzat.

**APEZA:** Nun dira sans-culotte-ak?

**BEÑAT:** Ba baziren hemen orai artio. Oixtian jautsiak dira, bainan beste biga heldu dira azpitik gora, joanen ordaintzerat!

**APEZA:** Tokia ezagutzen dutenatarik ote dira?

**BEÑAT:** Bai bainan, ez dut uste gaxto errabiatuetarik direla. Segur sartuko baitira Gaxuxaren ostatuan, Gaxuxari errana diot pixka bat abusa ditzan, hunarat etorri aintzin.

**APEZA:** Ta, norbaitek biltzekotz, Gaxuxak ditu bilduko!

**BEÑAT:** Bai, eta gainerat, bilduko duten mozkorra, bereri ongi pagaraziko... Berako elizan bazena jende hainitz goiz huntan?

**APEZA:** Hainitz... Ez gira kofesatsetik gelditu. Eta meza bat izan dugu xoragarria, hainitz komunioneekin.

**BEÑAT:** Hobe, hobe!... Eta, mugaz hunainditik, bazena multxo bat?

**APEZA:** Ba, Azkaindar eta Urruñar multxo pollita... Saratarrak, ez hainbeste, bainan halere, berrogoi bat.

**BEÑAT:** Orai ikusi behar ean nola berriz itzuliko diren hunarat.

**APEZA:** Bakotxak gure eskualdetik hartu ditugu gure jokamoldeak. Urruñarrak Ibardinetik, Azkaindarrak Intzolatik, gu berriz Saratarrak hemendik.

**BEÑAT:** Agian denak ongi itzuliko dira.

**APEZA:** Bon, ni egonen naiz hemen muga zain... Zuk aski duzu behereko lepoan emaita... Nik muga pasaraziko diotet eta igorriko ditut zureganat. Zuk aski dituzu kurriaraztea handik aintzina.

**BEÑAT:** Ongi da... Xol... Solasak behere hortarik... Heldu dira sans-culotte-ak. Gorde gaiten... Banoa ene lekurat.

**APEZA:** Bai... Sarri artio... Eta, gure Jainkoak lagun gaitzala! (*Beñat ateratzen da. Apeza gordetzen. Solasak entzuten dira gero eta hurbilago. Agertzen dira Pipo eta Tomas. Biak dira omore-onduek*)

**PIPO:** Dragon hori zirtzil bat duk... Zirtzil bat ederra... Eta hi eta ni, bi asto, gure burua emaiten baitugu horren zerbitzuko... Aitor-ebak egia... Egia hola duk.

**TOMAS:** Bai, zirtzila duk, nahi dukan bezenbat, bainan egia ere erraiten ditik: Mundu huntan, apezak eta erregeak nausi direno, gu bezalako jendea beti miserian egonen duk.

**PIPO:** Bon, erregea hil diagu. Orai, apezik ere ez duk gehiago, denak ihesi joanak edo hilak baitira. Bainan, bizitzekotz, norbaitek lana egin beharko dik... Hik edo nik, edo beste norbaitek... Beti jendeak lanean berdin ari beharko dik!

**TOMAS:** Bai, bainan baduk diferentzia. Lehenago guk ginikan pekatzen eta bestek gintizteian manatzen. Orai, orga kargatu diagu bestela. Besteak dituk azpian eta gu gainean.

**PIPO:** Ba bainan, uste duka komedia hunek iraunen duela? Etxe guzirat sartzen gaituk, gureak balire bezala. Paper txar batzuen truk, nahi dugun guzia hartzen diagu: Huni selauruko bihia, hari sotoko arnoa, berdin behi edo ardi bat. Errepublikak pagatuko dituela erran-eta, kito uzten ditiagu... Berriz ere, uste duka, komedia hunek iraunen duela?

**TOMAS:** Ez zakiat iraunen duen... Anartean, balia gaiten... Biharkoa ez duk gurea. Goazen egungoari. (*Espainol mugazaina erakutsiz*) To, hor diagu beste mutur beltza! (*Oihuz*) Oie karabinero! Biba la Republika... Fuera el rey de España y toda la kokeria! (*Karabineroa kexu da*)

**PIPO:** Bon, jar gaiten. Ekar-ebak zahako hori! Patar tzar hunek, zintzurra idortu daitak.

**TOMAS:** Behar diagu mutur beltz hori gontzetarik atera. (*Oihuz*) Oie kokotero! Kamisa zikina, buen probecho! (*Edaten du... Karabineroa kexu, eskarnioka ari da*)

**PIPO:** Mutikoa, bakea emok. Odol berokoak dituk arraza hortakoak. Horiek, kolpe txarra laster ditek gero!

**TOMAS:** Ez hadila nigatik kexa... Atxikiko ditiagu bai! (*Oihuz*) Oie kokotero, pistolero del rey de España! Biba la Republika! (*Gero eta kexuago, karabineroak errebolbera eskuan hartzen du*)



**PIPO:** Mutikoa, bakea emok hire astokeriekin... Neurri bat baduk denetan!  
Horrek berdin berdina tiro bat emanen dauk... Ni, urrun-  
tzen nauk higanik.

**TOMAS:** Hoin beldurtia hiza?... Muga hor duk gero eta horrek badik bere  
errespetua. (*Oihuz*) Oie, mierdero del rey de España, por la  
gracia de Dios. Biba la... (*Karabineroak tiratzen diozka bi tiro...  
Tomas, hunkitua, lotzen da bere tripari... Karabineroa gordetzen  
da*) Ai, ai!... Urde tripa ustela!

**PIPO:** (*Artatzen duela*) Errana naian, horri bakea emaiteko... Nun harrapa-  
tu hau?

**TOMAS:** Ai, ai!... Hemen tripan... Eneak egin dik... Emok tiro bat!... Tiro  
bat emok ustel zikin horri!

**PIPO:** Tiro bat bai... Orai, joana duk ihesi...

**TOMAS:** Ai, ai!... Ni akabo nuk... Akabo nuk! Urde ustela!

**PIPO:** Mutikoa, egin-ezak bederen kontrizionezko akta bat... Dragon eta  
Bortolo hor baitira goraxago, hetarat nihoak!...

**TOMAS:** Habil, habil!... Laguntza!... Laguntza!... (*Bera gelditzen da, intzirik...  
Haren boza doa abulduz*) Ai, ai! Barka!... Barka Jauna! Urde  
ustela! Barka!

**APEZA:** (*Bere gordetegitik*) Ha, zer egin behar dut nik? Agertu ala ez agertu?  
Horrenganat hurbildu ala ez? Jainko ona, lagun nezazu!  
(*Hurbiltzen zaiu*)

**TOMAS:** (*Azken hatsetan*) Ai, ai!... Barka Jauna!

**APEZA:** Adixkidea, apez bat duzu zure aldean... Gure Jainkoa ona da.  
Eskain-zkitzu zure sofrikarioak... Bekatuen barkamendua  
emaiten dautzut. (*Absoluzioea ematen ari delarik, boz batzu  
entzuten dira. Lehenbailehen badoa berriaz gordetzerat. Tomas  
emek hiltzen da... Agertzen dira Pipo, Bortolo eta Dragon*)

**DRAGON:** (*Gorputza hunkituz*) Hau hila! Hila gizona! (*Pipori oldartuz*) Zer-  
tako hau hila?

**PIPO:** Erran dautzut, jauna!

**DRAGON:** Ni ez jauna, ni citoyen Dragon!

**PIPO:** Erran dautzut, citoyen Dragon, espainol karabinero batek hil duela.

**DRAGON:** Zertako hik ez hil espainola?... Harek pan! Eta hik pan! Hila  
nun espainola?

**PIPO:** Ez dut astirik izan... Ihesi joan da.

**DRAGON:** Hi, soldado txarra... Hi preso... Hi, Conseil de guerre! Besteak  
laguna hil. Hik ez hil bestea... Hi, lepoa pika merezi.  
(*Orduan agertzen da, Madalen, Espainiatik beldu, zere bat beso-*

*an*) Citoyenne, halte-là! (*Orroaz beti mintzo*) Citoyen Borto-  
lo, mia neskatxa... Citoyenne, hi heldu nundik?

**MADALEN:** Beratik, jauna!

**DRAGON:** Bera?...Bera, Espainian... Nork eman permisa, he?... (*Madalen  
ixilik dago*) Citoyenne, hi xpiuna! Hi salatu frantsesa...  
Horra espainol soldadoa hil frantsesa... Hi falta, frantsesa  
hila!

**MADALEN:** Ez dut nik nehor salatu!... Ez naiz ni xpiuna!...

**DRAGON:** Hi zertako Espainian?... Ale, erran!... Erran zertako!...

**MADALEN:** Kofesatzerat joana nintzen.

**DRAGON:** Ha ba! Kofesa!... Hik apeza dena erran kofesan!... Apeza sol-  
dadoa hil! Republika ez libro kofesa... Fini Jainkoa, fini  
kofesa!... Ez apeza kofesa... Enekin kofesa... Ni Republika  
gizona... Eni behar erran dena. Orai hi, citoyenne, preso...  
Hi, lepoa pika.

**MADALEN:** Ez dut nik nehoi kalterik egin!

**DRAGON:** Citoyen Bortolo, hik eta nik neskatxa ereman preso... Citoyen  
Pipo, hik gorputza ekarri.

**PIPO:** Nola nahi duzu, jauna, gorputz hau garraia dezadan?

**DRAGON:** Ni ez jauna, he!... Ni citoyen Dragon, ni zaldia igorri... Hik zal-  
dia kargatu... Hik gorputza ekarri!

**PIPO:** Ongi da, citoyen Dragon.

**DRAGON:** Ale, citoyenne, kurri aintzina... Hik guardia arma gibeletik...  
Ale, kurri. (*Hirnak ateratzen dira... Bortolok, arma eskuetan,  
zaintzen du Madalen*)

**PIPO:** (*Bakarrik*) Ni preso!... Conseil de guerre!... Ni, horien arterat berriz  
sartu?... Ez nuk hortako aski xoroa! Leporaino badiat sal-  
tsa huntarik!... Beran izanen ahal da bizitzeko ene doia  
leku!... (*Pipok «aitaren» labur bat egiten dio lagunari. Karabineroa  
berriaz agertu da. Pipok, bere arma lurrerat aurtikitzen du eta, beso-  
ak altxaturik, badoa karabineroari errenditzerat*)

OIHALA



## LAUGARREN GERTALDIA

### Joka-lekua:

Presondegia bat... Madalen preso da burdinazko kortxila baten barnean. Kanpotik, zaintzale du: Bortolo.

*Entzuten dira ate kirrinka eta gako soinu batzu.*

**BOZ BAT:** (*Ateko aldetik*) Emazte bat sartzen... Bost minuten baimena!

**BORTOLO:** (*Errepikatuz*) Emazte bat sartzen... Bost minuten baimena!  
(*Katalin agertzen da, doluz bezti, penaz lebertua*)

**MADALEN:** O, ama! Zu hemen! Eta ni ezin hurbil zureganat! Estekatua naukate. Nola utzi zauzte etortzerat?

**KATALIN:** O Madalen! (*Nigarrez ari da*) Ikasi dut kondenamendu izigarria, eta izan naiz jujen atzemaiten.

**MADALEN:** O, ama, ez ahal zira apalkerietarat jautsi, jaun horien aintzinean?

**KATALIN:** Ez haurra. Ez naiz jaun horietarat hurbildu ene burua herrestatzeko, baina zerbait egin nezakedan jakiteagatik, zure bizia salbatzeko.

**MADALEN:** Frogatu ahal duzu, nik bezala, den arrazoin zuzenenak debalde direla jaun horiekin. Ene bizia nahi baitute eta ez zuzenbidea.

**KATALIN:** Diotenaz, kofesatzerat joana zinela Berarat, diozute aitortu.

**MADALEN:** Bai, ama, egia erran diotet.

**KATALIN:** Legez erlijioa ez omen da haizu... Eta kofesatzerat joaiteak hiltzea merezi omen du.

**MADALEN:** Hala erran dautet eni ere, eta ihardetsi diotet ez dela hori Errepublikak hitzemaiten duen libertatearen errespetatzea.

**KATALIN:** Baina diote hiltzetik libra zintezkela, oraino ere, zure aitormean tematzeko orde, beste zerbait solas ateratzen baziniote.

**MADALEN:** Zer nahi duzu nik besterik erraitea?

**KATALIN:** Erraiten baziniote, haurra, Beran zinela familiarentzat bizi-gailuketarat joana edo holako!

**MADALEN:** Ez ahal zinuke nahi, ama, ni mintzatzea bi gisetarat! Holako kezkan bizi girelarik, kofesatu eta berehala, gezur bat errai-

tea! Zer pentsa lezakete jaun horiek gure fedez? Hala egin baneza, arrazoi bat gehiago ez ote lezakete ukan gure fedea mesprezatzeko?

**KATALIN:** Ez dakit, haurra! Ni, zu salbatu nahiz ari naiz.

**MADALEN:** Bekatuan eror araziz nahi nituzke salbatu? Ez ote daukuzu zuhaurek erakatsi ez dela sekulan gezurrik erran behar?

**KATALIN:** Konpreni-azu, haurra!... Ni zure ama naiz... Konpreni-azu zer den ama batentzat, maite duen haurra, hola joaiten ikustea!

**MADALEN:** (*Nigarrez*) Ama, nik uste, mundu huntan, azken aldikotz dugun elgar ikusten... Betidanik ezagutu zaitut fermua, jainkotiarrak... Zutaz oroitzuz, dut izan aski bertute, beti egia den bezala aitortzeko, jaun horien aintzinean... Ene biziko azken orenetan, ez zazula histu, ene kontzientzian zutaz dudana oroitzapen paregabea.

**KATALIN:** Ez dakit ba, haurra... Jada zure aita galdua dut... Orduan eta beste hainitz aldiz, Jainkoari erran diot «Egin bedi zure nahia». Baina, hau, soberakina da, soberakina. (*Nigarrez*)

**MADALEN:** Barnea daukat bakean. Etxeko guzieren errozute maite ditudala. Ene bizia eskainiko dut, ama, heientzat eta zuretzat... Jaun erretorarentzat ere bai.

**KATALIN:** Jaun erretora hor dago presondegiko atean... Sartzea galdegin du, etxeko mutila dela erranez zu ikusteko. Baina ez dute utzi.

**MADALEN:** Errozu, ene partez, bizia eskaintzen dudala, bakea eta fedea azkar ditezen hemen gandi... Milesker ere, egin dautan ongiarentzat... Norbait penetan bada nigatik, barkamendu galdatzen diot... Nik ez dut nehoi deus barkatzekorik.

**BOZ BAT:** (*Atezainarena*) Bost minuta joanak dira... Emaztea kanporat!

**BORTOLO:** (*Errepikatuz*) Bost minuta joanak dira... Emaztea kanporat!  
(*Ama alabek, elgarri musu bat igortzen diote... Amak musu emaiten dio kortxilaren burdinari... Biak nigarrez, berexten dira... Apur bat ixilik, Bortolo mintzatzen da, hunkitua, ilunki*) Madalen, zer pentsatzen duzu nitaz?

**MADALEN:** Ez da eni zu jumatzea... Hori uzten dut zure kontzientzia eta Jainkoaren gain.

**BORTOLO:** Badakit arras begi gaxtoz ikusten duzula soinean dudana arropa... Baina sinets nezazu, bihotza urratua daukat hemen gertatzen direnak ikusiz.

**MADALEN:** Jainkoa zaizu barnetik mintzo.



**BORTOLO:** Nik, Errepublikaren alderdia hautatu dut, nahi bainuen zuzentasun eta berdintasun gehiago mundu huntan izan zadien...

**MADALEN:** Zuzentasuna ez da egiten gizon zuzenekin baizik... Zu hala zira. Baina, zure lagunak hala ote dira?

**BORTOLO:** Lehen, gauzak makur ziren... Orai ez doazi batere zuzenago... Ez dakit gehiago zertan ezar ene esperantza.

**MADALEN:** Amets ederrenak deus ez dute balio, heien zerbitzari diren gizonak badira gaxtoak... Fedez eta kontzientziaz zerbitzatu ametsek dute bakarrik mundua hobetzen.

**BORTOLO:** Barkamendu galdatzen dautzut.

**MADALEN:** Ez nauzu ni deusetan ofentsatu. (*Lehen bezala, ate arrabots batzuz entzuten dira*)

**BOZ BAT:** Jaun jujea!... Utz sartzerat.

**BORTOLO:** Jaun jujea!... Utz sartzerat!

**JUJEA:** (*Sartzen da, sans-culotte bat eta sekretario bat dituela laguntzale. Mintzo da harroki sentimendukeriarik gabe, papera irakurtuz*) Citoyenne Madeleine Larralde, berriz eta azken aldikotz, zombait galde zuri! Egia da ala ez, xpiungoan ari zinela erregearen alde, eta, zuk salaturik, gure soldado bat hil dutela mugan?

**MADALEN:** Ez da egia.

**JUJEA:** Egia da ala ez, denek diotena: Gizon gazte batekin bazinuela atxikimendua eta bazinuela usaia, haren ikusterat joateko ixilka, mugaz bestalderat? Ohartarazten dautzut Errepublikak haizu uzten zaituela edozoin gizonekin ibiltzerat, bainan ez muga trebesatzerat baimenik gabe.

**MADALEN:** Ez dut nik, gizonekin, atxikimendurik!

**JUJEA:** Egia da ala ez, familian miseria zinetela, eta, amak igorrorik, ibiltzen zinela kontrabandan, zure etxekoen hazteagatik?

**MADALEN:** Ez da egia... Egia bakarra da, Berarat joan naizela kofesatzerat goizarekin. Kofesatu eta meza entzun dutala. Mezan komuniatu eta gero, komisioneak harturik, etxerat itzultzen nintzela.

**JUJEA:** Ez zinakiena Errepublikak ez duela nahi gehiago izan dadien izpiritu gibelatuko jenderik eta hortakotz debekatu dituela gain gagnetik erlijioa eta beste sineskeria xoro guziak?

**MADALEN:** Jainkoa baitan sinestea ez da xorokeria... Beti izan da eta bada sineste hori... Ez du Errepublikak hilen. Ez dakit Errepu-

blikak iraunen duen, bainan segur naiz Jainkoaren alderako sinesteak iraunen duela.

**JUJEA:** (*Bizi-bizia*) Ez aipa eni Jainkorik! Ez duzu ikusten erlijioa azken hatsetan dela eta zure bizia galtzerat zoazila ezdeuskeria batentzat!

**MADALEN:** Errex da erraitea Jainkorik ez dela. Bainan errana eta izana biga dira. Nik, ene fedea eta ene esperantza, Jainkoaren baitan dauzkat.

**JUJEA:** (*Gero eta biziago*) Ez duzu ikusten norat ari ziren hola tematuz? Soldadoak hor dira bilduak zure fusilatzeke. Ez ahal duzu zure gorputza, balez ziltzerat utziko, ikusten ez duzun Jainko bati plazer egiteko menturarekin!

**MADALEN:** Ezdeuskeria balin bada ene sinestea, zertako nauzu kondentzen. Ongi zautzu bizia norbait kentzea ezdeuskeria baten-tzat? Nik Jesus dut beti maitatu eta zerbitzatu... Hartan dut ene konfiantza osoa... Ez dut hareganik baztertu nahi.

**JUJEA:** Bainan, haurra, mintzo naiz ene haurra bazine bezala, gazte zira oraino... Jesusekin dautzute muntatu burua... Nik ere, zure adinean, sinestea banuen Jesus baitan. Bainan geroztik hainitz ikusi dut eta ikasi... Orai Jesusik gabe bizi naiz... Beste asko ere bai, ni bezala... Uste duzu hortakotz malurus niza-la? So egin eni... Nor da malurusago? Zu ala ni?

**MADALEN:** Gorputza, jauna, estekatua dut, bainan arima libro daukat... Zuk aldiz, zure arima, bekatuaren esklabo daukazu... Oroit zaite zure arimaz!

**JUJEA:** Ez badituzu ele horiek bestelakatzen, apur baten buruan hemen izanen dituzu zure bilariak. Bizirik entzunen dituzu zure hil zeinuak. Murru hotz bati bizkarrez fusilatuko zaituzte... Zure gorputza, saski tzar batean sarturik, hilerri zoko bate-tarat aurtikiko dute... Hortaratzeaz ez zira ikaratzen?

**MADALEN:** Zu, bai, jauna, ikaratzen zira, diozunaz, hemengo bizia galduz geroz, oro galduak baitaukazu... Nik aldiz badakit, balek zilatuko nautelarik, ene baitako bizia ez dela suntsituko, bainan kanbiatuko bakarrik. Bihar, jauna, bizirik izanen naiz, ez egun bezala, bainan bestela eta, esperantza dut, egun baino hobeki.

**JUJEA:** Ikusten dut zure tema ezin sendatua dela... Ez ditut beraz solas debaldeak luzatuko. Azken aldikotz galdatzen dautzut:



Dolu duzu eta barkamendu galdatzen duzu Beran kofesatzen izanik?

**MADALEN:** Jainkoari eskerrak bihurtzen diozkat holako grazia ukanik.

**JUJEA:** Hitzemaiten duzu, hemendik aintzina, Errepublikari jarraikiko zirela eta bere gisa utziko dituzula Errepublikak debekatzuten dituen sineskeri xoro guziak?

**MADALEN:** Jainkoari galdatzen dut ene fedeari beti leial egoiteko laguntza.

**JUJEA:** Hanbat gaxto zuretzat... Beraz, citoyenne Larralde, ikusiz Errepublikaren legea haundizki kolpatu duzula, ez duzula hortaz demendreneko urrikirik ez eta bide makurretik urruntzeko xederik, Errepublikako legeen arabera eta Errepublikaren izenean, hiltzerat kondenatua zira... Egun berean izanen zira fusilatua eta zure izena betikotz kendua izan bedi Errepublikako paper eta ageri guzietarik.

**MADALEN:** Jainkoari ene bizia, jauna, eta ene odolak lagun zaitzala zu ere, egun batez, giristinoki hiltzen.

**JUJEA:** Balin baduzu azken nahikunderik agertzeko, mintza zaite lehenbailehen.

**MADALEN:** Ba, jauna, banuke nahikunde bat!

**JUJEA:** Ha! Zoin ote?

**MADALEN:** Amak erran daut, oixtian, gure etxeko mutila presondegiko atean dagola. Ez dute utzi sartzerat amarekin... Mutil hori, enetzat aita bat bezala da. Ene nahikundea liteke, hil aintzin, horren ikustea.

**JUJEA:** Ez duzu besterik galdatzeko?

**MADALEN:** Ez jauna!

**JUJEA:** Berehala sar araziko dut zuen mutila... (*Hiruak ateratzen dira*)

**BORTOLO:** (*Oihuz atezainari*) Idek!... Jujea bere bi lagunekin!

**BOZ BAT:** (*Atezainarena. Errepikatzen du*) Idek!... Jujea bere bi lagunekin! (*Madalen belaunikatzen da eta nigarrez hipaka hasten. Hola dago bakarrik apur bat. Bortolok bibotza beratz daukala seinale du... Atezainaren boza berriz entzuten da*) Utz sartzerat gizon bat!... Bost minutentzat!

**BORTOLO:** (*Errepikatur*) Utz sartzerat gizon bat! Bost minutentzat!

**APEZA:** (*Agertuz*) Madalen!

**MADALEN:** Jaun erretora!... Ho, Jainkoa zoin ona den, emaiten baitaut, oren huntan, zu hemen aurkitzeko grazia!

**APEZA:** Nigarrez ari zinena?

**MADALEN:** Ez uste izan, jaun erretora, barnea eriz ari nintzela nigarrez... Jujearekin ari izan gira arrazoinka, baktotxa gure alde eta horrek dauzkit pixka bat zainak bultatu... Bainan, arima bakean daukat eta kasik bozkariotan.

**APEZA:** Madalen, azken absoluzone bat emaiten dautzut... Hemen ez baigira buruz buru egoiten ahal, ez duzu bekaturen erraite beharrik. Aski duzu urrikia ukaitea zu baitan... (*Madalen belauniko. Apezak emaiten dio absoluzone labur bat*)

**MADALEN:** Jaun erretora, behin ere ez ditut nehon holako memento kartsuak iragan, nola gure ezkaratzean, otoiitz egiten zure inguruan... Behin, zurekin erran ginituen hiltzerat doazinentzat otoiitz hunkigarri batzu... Hek berak nahi nituzke orai errepikatu.

**APEZA:** Bai, haurra, hemen dauzkat liburuan: Hiltzerat doatzinen litaniak ziren... (*Litanien gisan erraiten ditu*) Jauna libra nezazu azken oreneko tentamendu gaxtoetarik!

**MADALEN:** Halabiz!

**APEZA:** Jauna, zu baitan dut konfientziarik osoena!

**MADALEN:** Halabiz!

**APEZA:** Jauna, zure gomendio ezartzen dut ene arima!

**MADALEN:** Halabiz!

**APEZA:** Jesus Jauna, har nezazu zurekin!

**MADALEN:** Halabiz!

**APEZA:** Ama zerukoa, lagun nezazu heriotze saindu baten egiten!

**MADALEN:** Halabiz!

**APEZA:** San Josep, heriotze onaren patroina, zaude enekin oren latz huntan!

**MADALEN:** Halabiz!

**APEZA:** Santa Madalena, ene bataioko patroin saindua, lagun nezazu!

**MADALEN:** Halabiz!

**APEZA:** Jesus, Maria, Josepe, har nezazue zuekin, familia sainduko bakean!

**MADALEN:** Halabiz!

**BOZ BAT:** (*Atezainarena*) Bost minuta!... Gizonak heldu kondenatuaren hartzerat!

**BORTOLO:** (*Abulki errepikatur*) Bost minuta!... Gizonak heldu kondenatuaren hartzerat! (*Agertzen dira jujea eta bi sans-culotte. Hurbiltzen dira Madalengenat*)

**MADALEN:** (*Beti belauniko*) Apur bat otoi jaunak! Utz nezazue «Maria Saindua» erraiterat! (*Apezak eta Madalenek erraiten dute emeki*)



«Maria Saindua»... Madaleneke, bakarrik, eta emeki doblatzén ditu «orai eta nere heriotzēko orenean» hitzak... Halabiz erran eta, Madalen xutitzén da) Jaunak, zuen gomendio! (Ixil eta laster, soldadoek joaiten dute Madalen... Orduan hasten dira hil zēinuak... Bortolo dago gogoetatua, zutik, murruren kontra. Apeza liburutik ari da gora gora otoitzēan)

**APEZA:** (PS 26)

Jainkoa da ene argia eta salbamendua,  
Noren naiteke beldur?  
Jainkoa da ene biziaren geriza,  
Nork nau ikaratuko?

Heldu diren jende gaxtoak  
Ene gorputzaren sarraskitzerat,  
Hek berak dira ikusten,  
Iziturik erortzen.

Gerlariak datorzila ene kontra.  
Bihotza daukat beldur gabe.  
Gerla bera pitz dezatela ene kontra.  
Ez dut konfiantzia galtzen.

Jainko onak ematen baitu geriza  
Biziko egun latzetan.  
Emaiten baitu ihes lekua,  
Harroka bezain azkarra.

Jauna, ez egin eni beltzuri,  
Zu baitzira ene laguntza.  
Ez nezazula zutarik bazter utzi,  
Zu baitzira ene salbamendua.

Sinesten dut, badakit,  
Jainkoa ona dela.  
Ene bihotzak, esperantza osoa dauka,  
Jainkoa baitan.

(Ezkeilak joitetik gelditzén dira... Entzuten da atabala... Tirokatze bat... berriz atabala... Apeza ixiltzén da eta burua apaltzén du dolore handienarekin... Betbetan, Bortolok bere arma eta gaineko puskak aurtikitzen ditu presondegiaren erdirat eta ihes egiten du... Apezak, emeki erraiten du: «Betiereko zoriona bil boni eman otoi Jauna!»)

OIHALA